

GRAFFITI LEHIAKETA OLATU TALKA-ROMPEOLAS 2012

OINARRIAK

1.- LEHIAKETAREN XEDEA

Donostiako Udalak, Olatu Talka-Rompeolas 2012 jardueraren barruan, Donostia Kulturak eta Gazteria eta Aterpetheen Atalak, grafiti lehiaketa bat antolatu dute, grafitigileei eta kalitateko hiri-artearen sortzaileei parte hartzeko aukera emateko eta haien lana sustatzeko, kultura eta arte adierazpide gisa. Deialdiaren xedea bikoitza da: batetik Intxaurren Kultur Etxearen aurrean dagoen hormaren margoketarako (7mX2,5m) eta, bestetik, Donostian zehar aukeratu diren 15 semaforo reguladoreen esku-hartze artistikoetarako (ikus xehetasunak erantsian).

2.- PARTE HARTZAILEAK

Baldintza hauek betetzen dituzten interesdun guztiek parte hartu ahal izango dute, bakarka edo taldeka:

- 16 urtetik gorakoak izatea.
- Hala badagokio, taldeak gehienez ere 5 lagun izatea.
- Adingabeen kasuan, aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena aurkeztu beharko dute lehiaketan parte hartzeko.(antolakuntzak eskuragarri jarriko du inprimakia)
- Parte hartzaileek oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute.
- Parte hartzaile / talde bakoitzak zirriborro edo bozeto bat besterik ezingo du aurkeztu.

3.- GAIA

- Gai librea

4.- BOZETOAK

- Lanak jatorrizkoak eta argitaragabeak izango dira. Eduki alderdikariak, lotsagabeak, lizunak, xenofoboak, sexistak edo pertsonen edo/eta giza eskubideen duintasunaren aurkakoak dituen lanik ez da onartuko. Lanek, halaber, letrak, grafikoak edo irudiak besterik ez dituzte izango.
- Lehiaketaren azken faserako hautatua izanez gero egin nahi den grafitiaren proiektuari dagozkion A3 tamainako bozetoak hormarako diren proiektuetarako, eta A4 tamainukoak semaforo reguladoreetarako.

5.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Egin beharreko lanaren A3 tamainako bozetoa edo A4 tamainako bozetoa, kasuaren arabera.
- Izena emateko fitxa (oinarri hauen 1. eranskina)
- Hautatua izanez gero artistak (edo artistek) erabiliko dituen kolore eta materialen zerrenda (gehienez ere 20 unitate Montana 94 guztira hormaren kasuan eta 15 unitate semaforo reguladoreen kasuan). Zerrenda horrek oinarri hauei erantsitako formatuan besterik ez du balioko. (oinarri hauen 2. eranskina)
- Adingabeen kasuan, lehiaketan parte hartzeko aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena. (antolakuntzak eskuragarri jarriko du inprimakia)

- Parte hartzailearen (edo parte hartzaileen) NANaren –edo baliokidearen– fotokopia.

6.- FASEAK

I) Lanak aurkezteko fasea:

Oinarri hauen 2. puntuari eskatutako baldintzak betetzen dituztenek 2012ko apirilaren 2tik apirilaren 20 arte (biak barne) aurkez ditzakete lanak.

II) Hautatzeko fasea:

Horretarako izendatuko den epaimahai batek, aurkeztutako bozetoen artean, sormen, originaltasun eta kalitate irizpideak kontuan harturik, berrienak, adierazgarrienak eta arte adierazpen handienekoak iruditzen zaizkionak hautatuko ditu. Gehienez ere 5 lan hautatu ahal izango ditu (bakarkakoak zein taldekoak) hormaren kasuan eta 15 semaforo reguladoreen kasuan Epaimahaiaren erabakia 2012ko apirilaren 27an emango da argitara, Gazteria Saileko udal web gunean.

III) Gauzatzeko fasea:

Hautatutako lanak 2012ko maiatzaren 12an egingo dira, 11:00etatik 18:00ak arte. Hormaren esku-hartzaren kasuan antolatzaileek Intxaurren Kultur Etxearen kanpoaldean mugatutako eremuan arituko dira eta hautatutako lan bakoitza egiteko erabilgarri izango den azalera 7x2,50m izango da. Semaforoaren reguladoreen kasuan (125cm X 66cm X 33cm), berriz, proposatzaile bakoitzari zein reguladoretan lan egin behar duen zehaztuko dio, helbidea adieraziz eta mapa batean seinalatuz.

Izena eman eta hautatuak izan direnek besterik ezin izango dute parte hartu. Osterantzean, antolatzaileek egokitzat jotzen dituzten neurriak hartu ahal izango dituzte.

Lehiaketatik kanporatzeko arrazoia izango da:

- ✓ Grafitiak lan bakoitzari esleitutako espazioetatik kanpo egitea.
- ✓ Aldez aurretik hautatutako bozetoekin bat ez datozen grafitiak egitea.
- ✓ Beste parte hartzaileek egindako lanak aldatzea.
- ✓ Beste artista batzuen lana plagiatzea.
- ✓ Hautatuak izan direnek baino ezin izango dute parte hartu. Lehiaketaz kanpoko inor margotzen harrapatuz gero, pertsona edo talde hautatua lehiaketatik kanpo gelditu daiteke.

Antolatzaileek jarriko dituzte fase honetan parte hartzeko beharrezkoak diren esprai poteak edo pintatzeko gainerako materialak.

Antolatzaileek beren esku gordetzen dute baldintza meteorologiko txarrak izanez gero grafitiak egiteko eguna aldatzeko eskubidea. Antolatzaileek beren esku gordetzen dute lehiaketa atzeratzeko eskubidea.

7.- AURKEZTEKO MODUA ETA LEKUA

Anonimotasuna babesteko, proposamen bakoitzak diseinu bakarra izan beharko du, eta honela aurkeztu beharko da:

I) **A GUTUN AZALA.** Parte hartzailearen edo parte hartzen duen taldearen ordezkariaren identifikazio datuak sartu beharko dira: Izena emateko fitxa (1. eranskina) Gutun-azal honen kanpoaldean datu hauek idatziko dira:

- A gutun-azala: Identifikazio datuak.

açãçêíá--hì ãñ è-

í--êêçínÉâÉJfáíñ--ì êêçãÇç=hì ãñ è-bíñÉ--= Éâíêç-`ì ãñ è-â-í--êêçínÉâÉJfáíñ--ì êêçãÇç

2

fáíñ--ì êêçãÇçI-RTI-I ínçãál-ONU= -OMMNR-açãçêíá-Jp-â-pÉÁ-êíá•â

íÉâ-EMMPQF-VQP=OVN=VRO-ì-VQP=OTV=PQP= -ñ-ñ--VQP=OVO=TQS= -â-êêçínÉâÉ] Ççãçêíá-Kçè0

- Grafiti lehiaketa
- Lehiaketan parte hartzen duen pertsonaren edo taldearen izengoitia

A gutun-azala: Identifikazio datuak
Grafiti lehiaketa
<i>Izengoitia</i>

II) B GUTUN AZALA.

Gutun-azal honetan bozetoa sartu beharko da, kasuan kasu A3 edo A4 tamainan egina. Gutun-azal honen kanpoaldean datu hauek idatziko dira:

- B gutun-azala: Bozetoa
- Grafiti lehiaketa
- Lehiaketan parte hartzen duen pertsonaren edo taldearen izengoitia

B gutun-azala: Bozetoa
Grafiti lehiaketa
<i>Izengoitia</i>

INTXAURRONDO KULTUR ETXEA

Otxoki pasealekua, 218
20015

larrotxene@donostia.org

943 27 93 43

Orduategia:

Astelehenetik larunbatera:

16:00-20:30

Aste Santuan izan ezik:

Apirilaren 2tik 13ra (biak barne)

10:00-14:00

Apirilaren 2an eta 10ean:

10:00-14:00 / 16:00-19:00

GAZTE INFORMAZIORAKO BULEGOA

Mari kalea, 1 (Goikoa Jauregia)

943 48 14 35

gazteinfo@donostia.org

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 / 16:00-18:00

Ostiralean: 10:00-13:30

Apirilaren 2tik 13ra izan ezik (biak barne)

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:30

Donostia Kultura sareko **beste edozein kultur etxeetan.**

8.- AZKEN XEDAPENA

Antolatzaileek parte hartzaileen jardunak grabatu ahal izango dituzte eta/edo haien argazkiak egin, baita gero erreproduzitu eta/edo erakusketak egin ere.

Hautatzen ez diren lanak artxibatu egingo dituzte antolatzaileek, eta inoiz hiriko beste espazioaren batean gauzatzeko hautatu ahal izango dituzte. Kasu horretan, antolatzaileak harremanetan jarriko dira lan horren egilearekin.

açãçêfá--hì ãñ è-

i-êêçínEáEJfáñ-ì êêçãÇç=hì ãñ è-bíñE-- = `Eáfêç-` ì ãñ è-ã-i -êêçínEáEJfáñ-ì êêçãÇç

3

fáñ-ì êêçãÇçl=RTK=l ínçãal=ONU= =OMMNR=açãçêfá-Jp-ã-pEÁ-êfá•ã

iEãEMMPQF=VQP=OVN=VRQ=l=VQP=OTV=PQP= -ñ-ñ--VQP=OVO=TQS= -ã-êêçínEáE] Ççãçêfá-KçEÖ

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiz onartzen direla esan nahi du.

Datu pertsonalen babesa

Pertsonen Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa dela eta, jakinarazi nahi dugu hemen adierazten diren datuak Donostiako Udaleko Gazteria Bulegoko fitxategi automatizatuaren parte izango direla eta Gazteria Bulegoa fitxategi horren arduraduna dela (Helbidea: Gazteria Bulegoa, Mari kalea 1; gazteria@donostia.org, telefonoa 943481909). Fitxategiaren helburua beste lan batzuk hautatu ahal izatea da, inoiz hiriko beste espazioren batean egiteko. Era berean, eskubide denez, daturen bat zuzendu edo deusezteko aukera izango da. Horretarako, eskaera bat bidali beharko da aipatutako helbidera.